



13/2020 AKTA

2020ko irailean 24an, 13:00etan, Gasteizen elkartu da **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura**, aurretik deialdia eginda, eta gai-zerrenda hau jorratu da:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Eskerak eta galderak.

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

BATZORDEKIDIAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

María Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.

• **2020/000145 espedientea ebazteko proposamena**

Jarraian batzordeburuak proposamena egin duen batzordekideari eman dio hitza. Proposamen hori aurretiaz bidali zaie Batzordeko kideei, azter dezaten. Aztertu ondoren aho batez onartu da Batzordearen 30/2020 Ebazpenaren bidez.

• **2020/000147 espedientea ebazteko proposamena**

Jarraian batzordeburuak proposamena egin duen batzordekideari eman dio hitza. Proposamen hori aurretiaz bidali zaie Batzordeko kideei, azter dezaten. Aztertu ondoren aho batez onartu da Batzordearen 32/2020 Ebazpenaren bidez.

• **2020/000183 espedientea ebazteko proposamena**

Jarraian batzordeburuak proposamena egin duen batzordekideari eman dio hitza. Proposamen hori aurretiaz bidali zaie Batzordeko kideei, azter dezaten. Aztertu ondoren aho batez onartu da Batzordearen 43/2020 Ebazpenaren bidez.

2. Eskerak eta galderak

Batzordeak aztertu ditu erreklamatzailerak pertsona juridikoak diren eta ebazteke dauden kasuak, eta Batzordeari zuzendu zaizkio aurrez aurre edo posta bidez. Zuzenketa-errekerimendua jakinaraztea erabaki da, eta adieraztea bere erreklamazioa Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorde honetan aurkeztu behar dela bitarteko elektronikoen bidez, pertsona juridikoa delako eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua horretarako ezartzen duen derrigortasuna kontuan hartuta. Horretarako, jakinarazpenean esteka bat emango zaie, "Erreklamazioa Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean" izeneko erlaitzean jartzeko.

<https://www.euskadi.eus/dbao/1014001/web01-sede/eu/>

Halaber, jakinaraziko zaie, bitarteko elektronikoa erabiltzeko, eskabidea pertsona juridiko gisa aurkezten bada, bi modutan identifikatu ahal izango dela: entitatearen ziurtagiri elektronikoa baten bidez, edo pertsona fisikoaren nortasun elektronikoko bitarteko baten bidez, baldin eta pertsona horrek entitate horren izenean jarduten badu; kasu honetan, alta emanda egon beharko du Ordezkarien Erregistro Elektronikoan, edo agiri publikoaren edo pribatuaren kopia eskaneatua aurkeztu beharko du, notarioak legitimatutako sinadurarekin (pdf formatuan), honako ordezkariak hain egiaztatzen duena.

Espediente horiek entzunaldi-fasean badaude, entzunaldi-epea etenda dagoela jakinaraziko zaie erreklamaturako erakundeei, zuzenketa egin arte edo, hala badagokio, atzera egin arte.

Idazkaria

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Batzordekidea

María Soledad Gutiérrez Rodríguez andrea

Batzordeburua

Javier Bikandi Irazabal jauna